



COVID-19: KONTINGENTZIA PLANA ETA PROTOKOLOA

Covid-19ak eragin ditzakeen egoerei erantzuteko, Maristak Durango ikastetxeak erreferentzi dokumentu hauek hartu ditu kontuan <https://www.euskadi.eus/koronabirusari-buruzko-informazioa/web01-s2hhome/eu/>:

1. Protokolo orokorra. [Protokolo orokorra. 2021-2022 ikasturtean ikastetxeetan Covid-19aren aurreko prebentzio neurriak](#)
2. [Lan-arriskuen prebentziorako neurriak EAEko ikastetxeetan, COVID-19ren eraginpean egoteko arriskuari aurre egiteko.](#)

Pandemiak 2021-22 ikasturtearen ibilbidea markatzen jarraituko du, eta bere eragina biztanleriarengan gertatzen diren infekzio kopuruaren arabera izango da. Hartutako neurriek hezkuntza presentzialaren jarduera garatzea bermatu nahi dute, beti ere COVID-19 hezkuntza komunitatean hedatzea saihestetik. Hori dela eta, kutsadura saihestea da gure zentroaren helburu nagusietako bat.

Maristak Durango Ikastetxean, COVID - 19ren aurreko prebentzioaren, higiearen eta osasunaren sustapenaren oinarritzko printzipioak honako hauek egituratzen dira:

- A. COVIDen aurrean ikastetxearen antolaketa
- B. Antolaketa eta prebentzio neurriak.
- C. Covid-19arekin bateragarri diren sintomen eta kasu positiboen aurrean jardutea.

Birusaren transmisioaren alderik kritikoena pertsonen arteko harremana izanik, osasun alroko agintariekin harremanez gain, ikastetxeko langile guztien, ikasleen eta familien erantzukizun partekatua funtsezkoa izango da. Plan hau eraginkorra izan dadin, hezkuntza-komunitate osoa kontuan hartzea eta sentsibilizatzea ezinbestekoa izango da.

A. IKASTETXEAREN ANTOLAKETA

Antolaketa-neurriek, ikastetxeko normaltasun berria kudeatzeko beharrari erantzuteaz gain, inguruan emoten diren aldaketetara egokitzeko beharrei malgutasuna ematen die.

Proposatzen ditugun neurriak, beraz, edozein egoeratarako baliagarri izan daitezkeenak dira:

COVID-19arekin lotutako gaien erreferentziazko-arduraduna ikastetxeko zuzendaria izango da, eta COVID-19 gaietarako koordinatzaile baten figura izango du euskarri: "Garapen Jasangarria" prozesuaren arduraduna.

Zuzendariak eta koordinatzaileak osatutako taldeak, Osasun eta Hezkuntza Sailek eta Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak ezarritako irizpideak jarraituz, prebentzio-jardueren garapena, antolaketa neurriak edota jardueren garapena monitorizatzea du helburu duen ikasturte jarduera kudeatuko du Gainera, ikasturtean zehar sortzen diren zalantzak eta gorabeherak helaraziko dizkio Jarraipen Batzorde Orokorrari, batez ere egoera aldatuz gero. Honez gain, familien ordezkariekin, ikasleekin eta langileekin partekatuko ditu hartutako neurriak eta erabakiak.

B. ANTOLAKETA ETA PREBENTZIO NEURRIAK

Hasieratik, pertsona guztien segurtasuna bermatu ahal izateko, edozein ekintza proposamen prebentzio-plan batean oinarritzea funtsezkotzat jo dugu. Prebentzio- eta higiene-neurri orokorrak honako hauek dira:

Gerelen antolaketari dagokonez, ikasleek beren artean sozializatu eta elkarreragin dezakete.

Sentsibilizazioa: Ikasleei higieneari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorarazteko saioak egiten jarraituko da, gela, ikastetxe eta adin bakoitzera egokituta, neurriak lasaitzea saihesteko.

Higienea: Eskuetako higiena maiz egingo da. Ahal de neurrian, eskuen higiena ura eta xaboiarekin egitea gomendatzen da, gel hidro-alkoholikoaren aurretik.

Eztul edo doministiku egitean, ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta estali behar da.

Maskararen erabilera:

- Ikastetxeetan ez da maskara nahitaz erabil behar; oro har, ikasleek maskara ez erabiltzea gomendatzen da.
- Pertsona (ikasle do langile) kalteberek maskara erabiltzea gomendatzen da.
- Maskara erabiltzea gomendatzen da kasu positiboetarako eta COVID19aren sintoma bateragarriak dituzten pertsonentzat.
- Langileen kasuan dagokion prebentzio-zerbitzuak zehaztuko du erabilera hori beharrezkoa den ala ez.
- Zaindu eta prebenitu behar da COVID-19aren arrisku-baldintzetan edo norberaren erabakiz maskara erabiltzen jarraitu nahi duten pertsonak estigmatizatzea.

Garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena: Gune komun garbiketa eta desinfekzioa bermatzeko garbiketa zerbitzua berrantolatu dugu. Goizean komunak, sarbidea eta korridoreak (pomoak, baranda, etab.) garbituko dira. Arratsaldeetan ikasgelen eta bulegoen garbiketa eta desinfekzioa egongo dira, baita pasillo, komun eta sarrerena. Arratsaldez ikasgela erabiltzen denean, prestakuntza bakoitzaren aurretik eta ondoren desinfektatuko da.

Azkenik, uneoro **atea zabalik eta leihoak erdi-zabalik** mantentzea, atsedendietan leihoak guztiz irekitzea eta ordu aldaketetan 5/10 minutuz irekita izatea gomendatzen da, **honekin aireztapena eta ikasgeletan eta bulegoetan airearen birsortzea sustatzeko**

Lanbide Heziketa arloan, praktikaaldietan edo lantokiko prestakuntza-aldietan, erreferentziako lanbide-eremuari dagozkion neurriak hartuko dira.

Oro har, irakasleen eta familien bilera guztiak aurrez aurre egin ahal izango dira, betiere higiene- eta aireztapen-neurri guztiak mantenduz.

Gurasoen elkarteak ikastetxeetako ohiko guneetan bildu ahal izango dira, bai eta egokitut jotzen dituzten prestakuntza-jarduerak egin ere.

Aire zabaleko espazioen erabilera sustatuko da era guztietako jardueretarako, kirolekoak izan edo ez, aisialdikoak zein hezkuntzakoak.

Neurri orokor honei, txertaketa gehitu da, eta horrek gaixotasuna prebenitzeko garrantzi eta eraginkortasun handiko neurri gehigarria suposatzen du.

C. COVID-19AREKIN BATERAGARRI DIREN SINTOMEN ETA KASU POSITIBOEN AURREAN JARDUTEA.

Ikastetxeak ez dira eremu kalteberatzat hartzen, eta, beraz, zaintza-protokolo orokorraren arabera, ez dago gomendatuta proba diagnostikoak egitea zaugarritasunirizpideak betetzen dituzten pertsonentzat baino: 60 urte edo gehiago izatea, immunodepresioa eragiten duen gaixotasun bat izatea eta haurdunaldia.

Ikasleek eta langileek COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituztenean, edo COVID-19 proba batean positiboak direnean, ez da beharrezkoa izango isolamendu zorrotza egitea, baina, beste arnas prozesu eta gaixotasun batzuetan bezala, ez da ikastetxera joango sintoma akutua dituzten bitartean, beren eta inguruko ongizateagatik.

Sintomak igortzen direnean, zentrorra berriz joan ahal izango da, COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak agertu eta hurrengo hamar egunetan, herritar guztiei gomendatutako neurriak jarraituz. Hezkuntza-ingurunean, honako hauek dira:

- Maskara etengabe eta zorrotz erabiltzea.
- Eskuen higie egokia mantendu.
- Pertsona zaugarriekin kontakturik ez izatea.

Proba diagnostiko positiboa duten sintomarik gabeko pertsonak aurreko neurriak jarraitu beharko dituzte.

Pertsona batek COVID-19ekin bateragarriak diren sintomak garatzen baditu ikastetxean, maskara kirurgiko bat jarriko du eta familiari edo legezko tutoreei jakinaraziko zaie, kaltetutako pertsona adingabea bada.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak, Osasun Publikoarekin koordinatuta, ikastetxeko irakasleen eta langileen egoera baloratuko du.